

Jarduera komertzialaren bilakaera ikusita, Erakundeak urte amaierako **aurreikuspenak hobetzeko aukera ikusten du**

Banka-negozioaren sendotasunak 125,5 milioi eurora arte igo du Kutxabanken sei hilekoko emaitza

- Oinarriko banka-negozia % 8,6 hazi da, produktu eta zerbitzu gehiago kontratatu direlako
- Hipoteka berrien ekoizpena % 70,8 igo da eta errekor berria lortu da. Gainera, alorreko buruan jarraitu du inbertsio-fondoan eta zorro delegatuen izenpetze garbietan, eta merkataritza mailegua % 60 hazi da
- Zuhurtzia goreneko irizpideak ezartzen jarraitu du, maileguetan eta higiezinetan gerta litezkeen higadurak estali ahal izateko, eta zuzkiduren mailak oso goian jarraitu du, 144 milioi eurotan
- Bankuaren berankortasunak hobetzen jarraitu du, % 1,95ekoa baita, eta zalantzasako aktiboaren bolumen osoa 1.000 milioi eurotik behera da jadanik
- Kalitate goreneko kaudimenean lidergoan jarraitzen du, % 17,3ko CET1 Fully Loaded ratioarekin

2021eko uztailaren 29an. Banka-negozioaren kemena erabakigarria izan da Kutxabankekin urteko lehen sei hilekoan **125,5 milioi** euroko irabazi garbia lortzeko.


‘**Core**’ sarreren bilakaera bikaina izan da, % 8,6 igo baitira, eta **ustiapeneko gastuak** nabarmen murriztu dira, % -6,6 zehazki. Bi faktore hauek **orekatu dute** ezohiko emaitza aipagarriarik ez egon izana, azken batean iazko garai beraren aldean emaitza murriztearen arrazoi nagusia.

Honela, bere **banka-zerbitzu eta produktu esanguratsuenen** kontratazio-maila ona izan da, eta urte amaierarako Erakundeak bere buruari jarri zizkion aurreikuspenak hobetzeko aukera ematen dio, merkatu-kuota irabazten jarraitu baitu, eta garrantzi handiena duten jardueren esparruetan errekor berriak lortu baititu berriro.

Hori guztia, osasun-krisiaren menpe egon den testuinguru ekonomiko batean, nahiz eta aurreikuspen makroekonomikoak nabarmen hobetu diren eta finantza-merkatuek hazten jarraitu duten, urtearen hasierarekin alderatuz gero. Hala eta guztiz ere, interes tipoek hondoan jota jarraitu dute, epe luzekoetan goranzko joera txiki batekin.

Baldintza zail hauekin ere, Kutxabankek 'core' produktuetan **merkatu-kuota** irabazten jarraitu du urte osoan zehar, alorraren aldean bilakaera-konparatibo hobearekin.

'Core' produktuen merkatu kuota



Kutxabanken negozio bolumena 122.373 milioi eurora arte iritsi da, duela urtebete baino % 7,4 handiagoa. Hazkunde honetan zeresan handia izan du negozio sareetako **mailegu inbertsio produktiboaren** igoerak, % 6,9 hazita, bai eta bezeroen baliabideen gorakadak ere, balantzetik kanpoko baliabideetan batik bat, azken 12 hilabeteetan % 7,9 egin baitute aurrera.

Errekor absolutu berria hipoteketan





Xehekako edo txikizkako sarearen merkataritza-jardueraren bilakaera ona urteko lehen seihilekoaren gakoetako bat izan da berriz ere, erruz gainditu baititu ezarritako aurreikuspenak hipoteka-mailegu berrietan, kontsumorako maileguetan, baliabideetan edo aseguru-jardueran.

Laugarren hiruhilekoz jarraian, Kutxabankek berriro ere hazkunde historikoak izan ditu hipoteka berrien errubrikan. Ekoizpen berriak indartu egin du Taldearen lidergo-posizio historikoa hipoteken arloan, bai bere lurralde naturaletan, bai Espainiako merkatuaren gainerakoan.

Gaur egun, Kutxabankek **EAEko** hipoteka-maileguen merkatu osoaren % 46,2 hartzen du, **Andaluziako** % 17,4 eta oro har **Espainiako** % 10.

Taldeak 1.000 milioi euroko muga gainditu du berriro formalizazio berrietan —laugarren hiruhilekoa da jarraian—, eta **2.300 milioiak** gainditu ditu urtearen lehen erdian; hau da, % 70,8ko igoera izan du 2020ko aldi berarekin alderatuta, eta % 39 gehiago 2019an, pandemia aurreko egoeran, izandakoarekiko.

Egoera ekonomikoaren eta kontsumitzaileen konfiantzaren susperraldia kontsumora bideratutako finantza-produktuen hazkundean nabaritu da, batez ere **mailegu pertsonaletan** eta **Saltegi Kredituan**. Ekainaren amaierara arte, Kutxabanke formalizatutako finantzaketa **% 19 hazi** da, eta saltegietan bertan formalizatutako maileguak **% 60** igo dira.

Hipoteka berdea 	524MM€ - 2.850op (KBen 4 hipotekatik 1 berdea da)
Kontsumo berdea 	3,3MM€ - 228op (2020aren aldean x3,5)
Aseguro berdea 	941 poliza berri (kontratazio berrien %4,7%)
Empresen fin. 	>600MM€ (irizpide berde edo jasangarriko finantzazioa)

Kutxabankek aurrera egiten jarraitu du **jasangarritasun** politikekin duen konpromisoan, eta baliabide garrantzitsuak bideratzen jarraitu du **gizartean eta ingurumenean eragin** positiboa duten jardueretara. Erakundeak, 2021ean, guztira **1.100 milioi** euro mobilizatu ditu energia berriztagarriak sortzeko ekimenak garatzen dituzten eta karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioaren alde egiten duten hainbat proiektutan. Horrek esan nahi du **ia % 15eko**

hazkundera izan dela aurreko ekitaldian sinatutako abalekin eta finantzaketarekin alderatuta.

Baikortasuna eta berreskuratzeko-seinaleak enpresentan

Negozio-sareek **45.513 milioi** euroko kreditu-inbertsio produktiboa lortu dute, hau da, **% 6,9ko** igoera.

Enpresatako arloak eta Erakundetako Bankak garatutako jarduerak eragin du, neurri batean, bilakaera positibo hori.

Birusaren aldaera berrien bilakaerak sortzen duen ziurgabetasunak ez du oztopatu enpresa-sektoreak suspertze ekonomikoaren seinaleak ematea. Sei hilekoan Covid 19 laguntza-programen bidez emandako **zorro osoaren % 60 baino gehiago berritu da**, eragiketa horiek amortizatzeko epe luzeagoa eta ezaldia hornitzeko helburuaz.

Ekoizpen-sarera bideratutako **finantzaketa berria % 17,7** hazi zen ekaina amaitu arte, eta **3.979 milioi** eurora iritsi zen.

Zirkulatzailerroak ere nolabait suspertu direla sumatu da, eta ekainean **% 8,4ko** urte arteko hazkundera izan dute, urte osoko handiena. Inbertsio finkoari dagokionez, beste adierazle positibo bat proiektuak lizitzatzeko eta industria-ekipamenduak martxan jartzeko **abalen** eskaera handiagoa izan da; zehatz esanda, **% 35eko** hazkundera izan da 2020ko lehen erdiarekin alderatuta.

Enpresek azken hilabeteetan egindako esportazioen hobekuntzaren ondorioz, % 16ko igoera izan da nazioarteko negozioari lotutako diruzaintza-jardueretan.

Diru-zorro delegatuek bezeroen baliabideei tira egiten diete


Bezeroen baliabideek azken hilabeteetako goranzko joerari eutsi diote, neurri handi batean balantzetik kanpo dauden baliabideen bilakaeraren ondorioz. % **7,9**ko hazkundearekin, epigrafe hori **72.169** milioi eurora iritsi da negozio-sareetan.

Kutxabank Taldeak merkatuaren eta bezeroen konfiantza izaten jarraitu du, eta joera hori bereziki nabarmena izan da osasun-krisia sortu ostean. Taldeak **sektorearen buruan** jarraitu du inbertsio-funtsetako harpidetza garbietan. Urteko lehen hilabeteetan harpidetza garbi gehien izan dituen **hirugarren taldea** izan da, **1.419 milioi** euroko aktiboekin.

Kutxabankeko **diru-zorro delegatuek** ere, Erakundearen aurrezki-inbertsioaren kudeaketaren lantza-punta gisa 15 urte bete dituen **eredu aitzindariak**, etengabeko hazkunde-joerarekin jarraitu dute, gora eginez bai kudeatutako ondarearen bolumenean, bai Finantza Taldearen funtsezko zerbitzu honetan konfiantza duten bezeroen kopuruan. Inbertsio-eredu hori **2.700 milioi** euro baino gehiago hazi da 2020arekin alderatuta; hau da, % **38,4** gehiago.

Bilakaera horren ondorioz, **Taldeak oinarritzko 30 puntuko** urte arteko hobekuntza lortu du **funtsen kudeaketaren** merkatu-kuotan, % **6,58**ra iristeraino.

Inbertsio fondoaren merkatu kuotaren bilakaera (%)



Euskadiko merkatu-kuota % 39tik gorakoa da eta Kordoban % 31tik gorakoa

Pentsio-planen eta, bereziki, Taldeak kudeatzen dituen **BGAEn** jokabide **errekorra** ere nabarmendu da; izan ere, horien ondarea **6.173 milioi** euroko maximo historikora iritsi da seihilekoaren amaieran, 2020an baino % **10,6** gehiago, eta horrek bere merkatu-kuota % **48,8**ra igo du (martxoko datua).

Berankortasunak etengabe hobetzen jarraitu du

Ekitaldian zehar, zalantzazko aktiboen saldoa gutxitzen jarraitu du Kutxabankek, sare guztietan gertatu da jaitsiera hori, guztira **116 milioi** euro urteko lehen sei hilabeteetan, **1.000 milioi** eurotik behera kokatzeraino, duela urtebete baino **% 28,2 gutxiago**.

Berankortasun-ratioak hobetzeko joeran jarraitu du eta % 2ko kotatik behera jaitea lortu du, izan ere, epealdiaren amaieran **% 1,95**ean kokatu da, Kutxabankek bere ibilbide osoan lortu duen indizerik txikiena. Jaitsiera horrek **oinarrizko 37 puntuko** beherakada esan nahi du sei hilabeteetan. Datu hori ona da sektoreko batez bestekoarekin alderatuta, **% 4,55** baita.

Partikularren zorroko % 3k nolabaiteko **luzamendua** izan du pandemia hasi zenetik, eta Espainiako finantza-sektorearen batez bestekoaren erdia da hori. **Luzamendu-zorroaren** guztizkotik **% 83** epemugara iritsi da dagoeneko, eta **% 17** geratzen da bizirik, 160 milioi euro baino gutxiagorekin. Zorro horren **berandutze-ratioa % 3,2koa** da; beraz, oso maila neurritsuetan mantentzen da.

Bestalde, zalantzazkoen estaldura-ratioa, gainbegiratze-gomendioen aplikazio aurreratuan kendutako kapital-estaldurak gehituta, **% 88ra** igotzen da, eta hori Espainiako finantza-sistemako altuenetako bat da, kontuan hartuta Taldeak duela sistemako hipoteka-zorroaren ehunekorik handiena.

Taldearen guztizko kaudimen-koefizientea eta **Core Tier I ratioa % 17,3koa** izan dira, espainiar finantza-sistemako buruan.

Emitzen kontua

Emitzen kontuan, **banka-negoziaren 'core'** sarrerek **% 8,6ko** hazkunde esanguratsua izan dute, guztira **564,4 milioi** eurokoak, batik bat **zerbitzuen sarrerek** eta **aseguruen jardueratik eratorritako sarrerek** sustatuta, biak batera **% 16,8** hazi baitira.

Nahiz eta interes tipoek era iraunkorrean negatiboan jarraitzen duten, **interesen marjina % 1,2** igo da, eta aseguruaren negazioaren ekarpena **% 12,6** handitu da, guztira **72,4 milioi** eurokoa izan baita.

Datu hauen arabera, banka negazioaren 'core' sarrera gehienak, **% 51 baino gehiago**, negatiboan diren interes tipoei aurre egiteko sarreren dibertsifikaziotik datoz eta, gainera, **administrazio-gastuen % 104** osatzen dute.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikariak ohiko sendotasuna izan du, eta **35,1 milioi** eurokoak izan dira dibidenduetatik eratorritako sarrerak eta bazkideen ekarpenak.

Horrez gain, **bestelako ustiapen gastuen** partidak negatiboan jasotzen ditu Taldeak Erresoluzioko Funtz Nazionalari eginiko ekarpenen kostua, ekainean zenbatu zena, bai eta geroratutako aktibo fiskalei lotutako tasena edota bezeroen gordailuen gaineko zergarena.

Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina 574,3 milioi** eurotik gora kokatu da, % **7,8** handituta.

Finantza erakundeak **ustiapen gastuak murrizteko ahalegin** handia egiten jarraitu du, zuzkidurak sendotu dituen bitartean.

Ustiapen gastuak iazkoaren aldean **21 milioi** eurotan murriztu dira, honek % **6,6ko** hobekuntza ekarri du. Honela, **Ustiapen Marjina 279 milioi** eurokoa izan da, % **28,8 hobe**a.

Halaber, Taldeak izaten duen zuhurtzia goreneko irizpidearen haritik, mailegu zorroaren eta bestelako aktiboen estaldurarako **saneamenduen** maila egonkor mantendu da, eta atal honetara berriro **144 milioi** euro bideratu dira. Iaz baino % **23** gutxiago da, orduan hornidurak egin baitziren aurre-erretiroen kostua beregain hartzeko.

Emitzen fiskalitatea aintzat izanik, Taldearen irabazi trinkoa **125,5 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino % **8,8** txikiagoa.

Emitza eta banka-negozioaren aldagarri nagusiak aztertu ondoren, Erakundeak **urte amaierarako ezarri zituen aurreikuspenak hobetzeko** aukera ikusten du.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2021eko ekaina

Miliodu eurotan	2021 ekaina	%Δ
Interesen Marjina	275,8	1,2
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	288,6	16,8
Banka negozioaren 'core' sarrerak	564,4	8,6
Dibidenduak eta baliokidetasunak	35,1	-5,1
ROF	-0,6	-86,1
Beste Ustiapen Gastuak	-24,6	25,8
Marjina Gordina	574,3	7,8
Ustiapen Gastuak	-295,4	-6,6
Ustiapen Marjina	279,0	28,8
Saneamenduak eta narriadurak	-143,7	-23,3
Beste irabazi eta galerak	31,0	-79,5
Zergen aurreko irabazia	166,2	-8,0
Zergak eta bestelakoak	-40,8	-5,2
Taldearen emaitza	125,5	-8,8

* Beste irabazi eta galeren atalean gordailuzaintza negozioa 2020ko ekainean utzi ondorengo emaitzak biltzen dira